

Goi

Goierritarra aldizkaria

389. zenbakia 2010eko urriak 22



**AXALKO
ZUREZKO
TXIRRINDUA**



Juan Antonio Urbeltzekin

**DANTZEN
JATORRIA
AZTERGAI**

ERKOTZE



XERBERA
Taberna & Jatetxea

AZAROAREN 6AN

babarrun jana

sakramentu eta guzti!!!

uuuummmmm!!!

Barrendainen, betiko tokian
Nafarroa etorbidea, 21 Beasain T 943 888 829



Goierritik 20 minutura...

Sukaldeak

Zeramikak

Bainugelak

Beheko suak



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29

Lakuntza (Nafarroa)

Tel.: 948 57 60 68



www.lopetegi.es


GaziGozo

janari denda



Elosegi, 5 - LAZKAO - t. 943 106 500 - m.649 244 401





Ekaitz Goikoetxea

Bai, ate irikiri itxiri baño bildur haundigoa dion ta goizetan eitteko asko ta gauetan zertaz goatuik izate ez don herrin bizi gaittun. Bai, Beasain den munduk hemen hartzen don izena, baño Berlin izan zitekenan Dodoma o Orinoco, izen bat zer den ba bokal ta kontsonante arteko zorizko konbinazio bat besteik. Kontue den gue euneroko joko-taula ajedrezana

gabe, partxisen geo ta itxura haundigoa hartzen ai dala. Badittun urte batzuk, pauso txikika ala jauzika, biden aurrea ein nahi deun beltz-zuri-berde-gorri guztik lur-azaleko hainbat metro koadro konpartitzen hasi giñela. Ta ze nahi den esatea, korrontek, antzarrak, puentifne ta garezurrek aukeran izanda, tristeia iruitzen zaian solitarion temaut seittu nahi izatea. Zai zeuzkenau kolorek noiz nahastuko, zai Goierri pasa dan asteburun nola atzea hala noiz koloreztatuko. Malkok badizkiñau; irriparre bat baño ez diñau behar erromako zubie lurreatzen hasteko. Hirea oparittuko?

Eta? ETA? Baita. Bai, bazekiñat nekez sinets litekela


Kontue den gue euneroko joko taula

ajedrezana gabe, partxisen geo ta

itxura haundigoa hartzen ai dala.

ikusten ez danik, baño hainbestekoa den mehatxu, jazarpen ta odol arrastoik'pe bizitzeko nahie... ze arraio, oaingo hontan ezer ikusi aurretik sinistea eabaki diñat. Ikusiko deula sinistea; ikusteko sinistea. Sinistea, sinistea iragane-kon errepika izango ez dien eunetan, gue burue (abertzale, ez-abertzale...) definitu beharrik'pe alkarrekin konpartittuko ditteun guneta unetan, alderdikeri ta zatiketarik'peko garai ez haiñ urrunetan. Zatiketarik'peko garai ez haiñ urrunetan bai, bi bihotz erdik ez baititen iñoiz bihotz osoik eitten, ta nik osoik maite ditiñat. Bihotzak.

Airen deun hanka metro laurden aurreago pausatzeo eskatzen ai zaiun herrie zeukanau zai, bizitza gabe, bizitzen asmatzeko eskatzen ai zaiun herrie, Euskal Herrie! Ni banijon, hi bahator?



Irati Goikoetxea

Bakik partxisen jolastea izuarri gustatze zaiyala. Inor jaten ibili be, banaka o seinaka, aurrea ittek zeukik meritue. Baño... bostekoa behar etxetio atatzeko. Ta ateatzeko aukerea izanda re, atek irikita eon behar. Jolaskide nor? Wafa, Adam, Wissal, Artium, Diana, Beñat, Irati. Ezberdiñek izanda pareko nahi nizekik, berdintasunen solaskide, mahaikide, lankide o kale-laun. Ez tiat elkarrengandio urrunduta banatze gaittun pareta, bandera, sinbolo, ikur, himno ta muturreko ideologitan siñisten. Askotan gelditze nauk *'U-tako parken'* boleibolen o Loinazpeko atariñ fubolen jolasen aitzen dien launei beida. Bai, inbidie emate ziatek. Herri hontan mundialitok antolau behar izate'ittuk (bejondaiela antolatzaillai!) hue ta ni,

Kalek zatittugi ikuste'izkiat; gurea mundua

zabaltzekin batea mundue_re gure baita

erakartzen ikasi behar diau.

hi ta hoi alkarrekin aittuko bagaittuk. Baño urtek egunkari ta aldizkariatan ateatzen ez dien berrogeita zortzi asteburutik gora zeuzkik... Kalek zatittugi ikuste'izkiat; gurea mundua zabaltzekin batea mundue're gure baita erakartzen ikasi behar diau. Batzen gaittuen lokarrikin alkarlanen alkarbizitza aberastea mundiala liteke! Ez al zaik iruitzen?

Eta... A bai! ETA. Beharrezkoa ikuste'iyat herri hau pausok ematen hastea. Pare pare ETAK eraikie don murrak blokeauta ikuste'iyat. Eta... partxisen e nazkau itten dek bat bosta noiz ateako zai eon behar donen. Sufrimendu ta min gehiegi pilautau daukeuna. Lehenbailehen mahai gaiñen armak uztea, ez diat besteik desio.

A! la aztu nian! Irriparra! To, oso-osoik.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,
Itsasondo eta
Ligorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

‘Axari’ arrastoak Argentinan

Joa zen Irailean Argentinan, Cordobako lurraldean, Idiazabalgo herriarentzat bi gertakizun berezi ospatu ziren eta bi herriko seme izan dira arduradun.

Demetrio Jauregialzo

Alde batetik Demetrio Jauregialzo, Larrostegi baserrian jaioa eta mutikotan, hainbeste euskadun bezala, Argentinara etorri zena. Urteetan zehar egindako lanarekin lur sail dexente eskuratzea lortu zuen. Argentinan ingelesak trenbide asko egin zituzten eta Demetrioren lurretatik pasa zen horietako bat. Garai hartan ohitura zen lurren jabeak, berak nahi zuen izena jartzea han jaioa zen tren geltokiari. Urte haietan, bide gehienak, denak ez esateatik, lurrezkoak ziren eta jendea trenez ibiltzen zen. Geltoki haren ondoan herria jaio zen eta Idiazabal izena jarri zion Demetriok bere jaioterriaren omenez.

Orain hamar urte bi Idiazabalek bat egin zuten, Antton Irizar alkatea zanean. Ni eta nire osaba Joakin, Zabarrain baserrikoa, eta bere emaztea Rosario, Akutain baserrikoa, han izan ginen. Oso pozik geunden denok eta zer esanik ez, hortik etorritako alkate, zinegotzi eta beste herritarrak. Hemen jendea oso irikia eta jatorra baita eta gainera inguru hauetan, eukal odolekoak asko baitira.

Irailaren 11n eta 12an ospatu zituzten Argentinako Idiazabalen ehun urteak. Hortik etorri ziren loritz Imaz alkatea eta Kepa Oiarbide zinegotzia. Jende ikaragarri elkartu zen 11 gauean herri afaria zelako. Herriak 1.700 bat bizi lagun ditu eta 2.000 ginen ospakizunean. Hortik ikusi zer arrakasta izan zuen. Su artifizialak bota zituzten Eukal Herriko eta Argentinako ikurriñen koloreekin. Oso politak!

Igandea 12an Izalgo herriaren laguntasunarekin egindako fundazioa inauguratu zuten arratsaldeko seiretan. Jendea erabat pozik eta eskerturik zegoen. Gero udalak prestatu duen toki eder batean, Cordobako euskal dantza talde bat eta bost gazte beraiek eskuz egindako euskal soinu-tresnekin saiatu ziren, euskal giro bikaina jartzen eta baita lortu ere. Hura giroa! Talde honen izena *Baietz*. Euskaraz hitz egiten eta abesten dute, guk bezalaxe.

Geltoki haren ondoan herria jaio zen eta

Idiazabal izena jarri zion Demetriok

bere jaiotaerriren omenez.

Juan Mari Altolagirre Gerriko

Beste aldetik Irailaren 29an, San Migel egunean, ospatu zen beste gertakizuna. Juan Mari Altolagirre Gerriko, Zabarrain baserrian jaioa, 1.836an Argentinara etorri zen, 18 urte zituztela. Ordurako bazeuzkan lur hauetan senideak bere amaren aldetik. Ama zeraindarra zen, Bengoetxea baserrikoa. Bere osabak San



Juan Mari Altolagirre Gerriko

Antonio de Arecon, Buenos Airesko lurretan dagoen herri batean, egin zituen lehenengo lanak, artzain bezala. Gero Gerriko izeneko herri bat ere sortu zuen inguru haietan.

Juan Mari bere bizitzan zehar, Demetriok bezalaxe, lortu zuen lur sail batzuk eskuratzea. Buenos Airesen zituen lurrei Idiazabal izena jarri zien, bere jaioterriaren omenez. Santa Fen zituen lurrei Santa Ana izena jarri zien, bere amaren omenez eta Cordobako lurraldean zituenei, Zabarrain, bere jaiotetxearen omenez. Azkeneko lur hauetan, Demetrioren lurretan bezalaxe, trenbidea egin zuten, baina Juan Mari ez zuen horrelakorik nahi. Zergaitik galdetutakoan, trenak botatako txinpartekin bere gari soroak erreko zirela, esaten omen zuen. Baina, trenbidea egin zen eta han sortu zen geltokiari Gral. Fotheringham izena jarri zioten. Hau Ingalaterran jaio eta mutikotan etorritako militarra izan zen, general karguarekin. Berak zuzendu zituen trenbidea eraikitzeako lanak. Lehen esan dudana bezala hemengo herriak, tren geltokiaren izenez ezagutzen ziren eta han sortu zen herriren izena Zabarrain egokitzen bazen ere, Gral. Fotheringham bezela ezagutzen da gehiago.

Orain ospatu da herriaren 80 urteurrena eta festa oso ederra izan zen. Herriak 400 bat bizilagun ditu.

Munduko baztar hauetan gabiltzan ‘axariak’ oso pozik gaude, bi ospakizuen horiengatik eta uste dut hor zaudetenak ere harro egoteko arrazoia badaukazuela, herriko bi semeak utzi zuten arrastoarekin.

Alde hauetara azaltzen bazerate, badakizue atea irekita daudela!

Antton Altolagirre Antia

Eskolako bidea



Azken urteetan gero eta ohi-koagoa bihurtzen ari da, ikasleak eskolara oinez edo bizikletaz joateko kanpainak antolatzea, Eskolako Agenda 21 proiektuaren ondorioz edo/eta Udal edo elkarteek ekimenez. Goierrin ere, bai Idiazabal, zein Lazkao oso arrakastatsuak izaten ari dira horrelako kanpainak. Eta justu hilabete hau, urria, mundu mailan, eskolara oinez joateari eskaintzen zaio herrialde askotan, urriaren 4a eskolara oinez joateko eguna izan delarik.

Zer da 'Eskolako Bidea'?

Ez da moda berri bat, baizik eta egoera jasanezina eta kaltegarri batetatik ohartu ondoren, egoera hori aldatzeko ahalegina.

Gero eta ikasle gutxiago doaz eskolara oinez edo bizikletaz, lehen ohikoena zena, eta gero eta gehiago dira, eskolara, gurasoen kotxean edo autobusean doazenak. Ondorioz, eskola sarrera eta irteeretan kotxe andana pila-tu, eta kaosa nagusitzen da herri eta hirietan, eta arrisku handiko egoerak, nola kutsadura eta zarata handitzen dira. Egoera hau gure herri-

eta hirietan ematen den egoeraren ispilua da, kale ugaritan kotxeek espazio gehiena okupatu eta kutsadura eta zarata handia baitago.

Halaber, *Eskolako Bidea* ingurumen hezkuntzako proiektua da eta horren bidez, ikasleak eskolara oinez edo bizikletaz joan daitezen bultzatzen da, era autonomoan eta seguruan, helduen nahitahiezko presentziarik gabe eta horretarako behar diren aldaketak eginez.

Ikasleek gehien erabiltzen dituzten ibilbideen artean seguruena aukeratu eta seinalizatzen dira. Horrela eguneroko eskolako bidea, haurrek autonomoki eta ingurunearekin, (auzoa, jendea, lagunak...) harremanetan egiten dute. Horretarako beharrezkoa da eskola komunita-

Ez da moda berri bat,
baizik eta egoera
jasanezina eta
kaltegarri batetatik
ohartu ondoren,
egoera hori aldatzeko
ahalegina.

tea eta herria inplikatzeko, eskola barruan irakasle, ikasle eta gurasoak eta herri mailan, udaltzaingo, dendari, jubilatatu, elkarteak laguntzarekin.

Autonomia garatzeaz gain, ikasleen sozializazioa garatzen da, ikasleak bere bizilagunekin joaten baitira, beren adinekoak edo eskola-koak izan ala ez eta harreman sarea zabaltzen da. Heldu laguntzaileak ere behar izaten dira, gurasoak, aiton-amonak edo beste edonor, eskola bidean ikasleak laguntzeko edo/eta hainbat puntu arriskutsuak zaintzeko, eta haien artean ere harremanak zabal-tzen dira, indibidualismotik komunitate sentipenera zabalduz eta auzolanaren esperientzia biziz.

Edurne Huesa Otegi

Eskoletako sarreretan egokitzapen seguruak

Eskolako sarrerek erabakigarriak dira haur eta gurasoentzat, hor sentitzen baita segurtasuna eta segurtasunik eza.

Segurtasuna bermatzeko, sarrera eta irteera orduetan udaltzainak egotea beharrezkoa da. Baina horrez gain, badi-ra hainbat egokitzapen, zirkulazioaren abiadura eta bolumena murriztu ditzaketenak: peatonalizazioak, espaloietan autoak ez uzteko mugak, semaforoak eta abiadura-moderatzaileak, autoak eskolako sarreran gelditzea debekatzea...

JAKIN BEHARREKOAK

Osasuna eskola jantokietan: Espainiako Ikasleen Gurasoen Elkartearen Konfederakundeak (CEAPAK) eskola jantokietan janari transgenikoak edo genetiko-ki eraldatutakoak ez erabiltzeko eskatu die erakunde-ek, janari horiek osasunean duten eragina jakiteko ikerketarik ez delako egiten, bereziki adin txikikoei dago-kienez. www.ceapa.es

Europako enpresa batzuek klima aldaketaren aurkako konpromiso gehiago eskatu. Europako 29 enpresek, horien artean, Philips, Barilla, Vodafone, Google edo Accionak, Europa Batasunari eskatu diote, 2020rako CO₂ isurpe-nak %30a gutxitzeko (gaur egun konpromisoa % 20koa), horrela klima alda-keta gertatzeaz gain, tekno-logia berdea eta hazkunde ekonomikoa zein enplegua garatuko direlako. www.greenpeace.es

Espainian 2009. urtean 95.175 hektarea erre ziren. 2010. urtean ordea 25.814 hektarea.

LIBURUA

'Hiria, haurrak eta mugikortasuna'; IHOBE, Eusko Jaurlaritza, 2003; liburu honetan haurrek hirietan mugitzeko dituzten arazoak azaltzen dira eta automobilen nagusitasunak sortutako ondorioak. Baina horrez gain, European zehar, hainbat herrietako agintari eta ikas-tetxeek hartutako neurri praktikoak adibideak ere badaude.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteen bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Denetik (XLII)

Maizpide euskaltegia

Kontuz zurrumurruekin, dedio!

Gaur ere Etxepareren hizkuntzan egiten dugun beste akats baten berri ematera gatozkizue, lagunok! Akats honen "jatorria", nola ez, gaztelanian aurkitu behar dugu beste behin. Kontua da (eta horrexegatik jarri diogu izenburu hori) zurrumurruek arazo bat baino gehiago ekar diezaguketela. Ez gara gu denak banan-banan azaltzen hasiko, baina esan esango dizuegu gaur dago-kiguna pentsaezina izango zela duela berrogei urte entzutea! Ondorengo bi esaldiei errepara iezaezue, txukunetik ezer gutxi dute-eta!

✗ "Telezinko"ko gizon itsusi horrek esandakoaren arabera, Belen Esteban abenduan **ezkonduko litzateke** bere orain-go senargai horrekin. (*desegokia*)

✗ Atzo bulegoan entzun dudanaren arabera, Ane eta Igor aza-roan **joango lirateke** Lazkaoko etxe berrira bizitzera. (*desegokia*)

Aurreko esaldiek, txukun jartzekotan, nola behar dute? Bada, hizki larriz agertzen diren aditz horien ordeaz, beste zerbait "sartuta"! Honelaxe:

✓ "Telezinko"ko gizon itsusi horrek esandakoaren arabera, Belen Esteban abenduan **ezkonduko da** bere oraingo senargai horrekin. (*egokia*)

✓ "Telezinko"ko gizon itsusi horrek esandakoaren arabera, Belen Esteban abenduan **ezkontzekotan da** bere oraingo senargai horrekin. (*egokia*)

✓ "Telezinko"ko gizon itsusi horrek esandakoaren arabera, Belen Esteban abenduan **ezkontzekoa da** bere oraingo senargai horrekin. (*egokia*)

✓ Atzo bulegoan entzun nuenaren arabera, Ane eta Igor aza-roan **joango dira** Lazkaoko etxe berrira bizitzera. (*egokia*)

✓ Atzo bulegoan entzun nuenaren arabera, Ane eta Igor aza-roan **joatekotan dira** Lazkaoko etxe berrira bizitzera. (*egokia*)

✓ Atzo bulegoan entzun nuenaren arabera, Ane eta Igor aza-roan **joatekoak dira** Lazkaoko etxe berrira bizitzera. (*egokia*)

Eros dezaket ala erosi dezaket?

Etor naiteke ala etorri naiteke?

Biak daude ondo, alajaina! **zaitezke** (*zintezkeen, zintezke*), **zaitezen, zaitzez...** bezalakoekin Euskaltzaindiak lehenengoa bakarrik ametitzen duela uste du hainbatek, baina bigarrena ere zuzena da. Orduan, zer dela eta azken honen "aurkako gurutza"? Beharbada, Euskaren Akademiak aditz erroa nola erabili behar dugun azaldu duenean, horixe bakarrik erabili behar delako ondorioa iritsi garelako!

Zer ez du onartzen Euskaltzaindiak? Bada, jarraian izartxoarekin agertzen direnak ez dira txukunak:

✗ Urriaren 16an Eskoziako politikariak zein kirolariak **ezagu** genitzake, Karmen! (*desegokia*)

✗ **Lo** itzazu ondorengo zutabeetako hitzak, gazte! (*desegokia*)

✗ **Irek** ezazu leiboa, Maritxu, ezin dut hemengo kiratsa jasan eta! (*desegokia*)

✓ Urriaren 16an Eskoziako politikariak zein kirolariak **ezagut** / **ezagutu** genitzake, Karmen! (*egokia*)


✓ **Lot** / **lotu** itzazu ondorengo zutabeetako hitzak, gazte! (*egokia*)

✓ **Ireki** ezazu leiboa, Maritxu, ezin dut hemengo kiratsa jasan eta! (*egokia*)

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Har ezan kafesnea... eta isildu hadi, Juanita!
2. Belen hori ikusten dudak bakoitzean goragalea jartzen zaidak, gizona! Jar ezak ETB1, pilota-partidaren bat izango duk!

OHARRA: biak zuzenak!



Azkar eta ondo usoak egiten omen du hegan...



kutxa

Katzalin, Bularreko minbizia dutenen elkarte:

Entzutea, laguntzea eta babestea helburu



Bularreko minbizia zutela jakin zuten eguna sekula ez dute ahaztuko Garbiñe Aramendik, Begoña Lasak eta Leonor Urangak, gaixotasun hau duten gainerako emakumeek bezala. Baina baikortasunez aurre egin izan diote beti gaixotasunari. Bizi kalitate onarekin, bizimodu normala aurrera eraman daitekeela aldarrikatzen dute Aramendik, Lasak eta Urangak. Filosofia horren adibidea da, egingo duten Bularreko Minbiziaren Nazioarteko egunaren inguruan, mastektomia ondorengo bainujantzi eta lentzeria desfilea. Aldi berean, minbizia dutenak bakarrik egon ez daitezen, egoera berdinean daudenekin hitz egitera gonbidatzen dituzte. Horretarako guztirako dago Katzalin elkarte.

Errepikatu egingo duzue mastektomia ondorengo bainujantzi eta lentzeria desfilea.

Garbiñe Aramendi: Desfilean partehartu genuenak gustura gelditu ginen eta ikusleak ere bai.

Leonor Uranga: Oso esperientzia polita da niretzat bai Ordiziakoa, eta bai Donostiakoa. Arrakasta handia izan zuen. Txiki gelditu zen Barrena. Aurten, Herri Antzokian egingo dugu.

Begoña Lasak: Nik iaz nuen parte hartu, eta aurten hartuko dut. Uste dut ekimen polita dela bularreko minbizia duena, bakarrik ez dagoela ikus dezan.

Zein da desfile honen helburua?

Uranga: Minbizia diagnostikatu dioten jendea depresioan ez erortzea. Ikus dezatela, bizitzak berdin jarraitzen duela. Ez dadila lur jota egon.

Aramendi: Bularreko minbizia daukaten emakumeei, psikologikoki baikorrak izan behar direla esan nahi diegu. Animatu daitezela. Ez daitezela lur jota egon. Bizitzak aurrera jarraitzen duela.

Uranga: Lehen bezain eder egon daitezkeela, eta lehen egiten zituen gauza berak egin ditzakeela. Ez daitezela kikildu. Laguntza behar badute, badakitela non gauden.

Minbizia hitzak beldurra, izua sortzen du oraindik ere.

Aramendi: Minbizia hitza oso gogorra da. Minbizia hitza esatea asko kostatzen da. Norbaiti minbizia daukazula esaten badiozu,

Katxalin Elkarte

1987ko ekainean jaio zen Katxalin, Emakume Mastektomizatuen Gipuzkoako Elkarte. Hasiera batean 10 emakumek sortu zuten elkarteak, gaur egun 350 emakumezko bazkide baino gehiago ditu. Elkartearen helburua, "bularreko minbizia izanik, tratamendua (mastektomiarik gabeko edo mastektomia bidezko kirurgia, kimioterapia, erradioterapia, hormonaterapia, etab.) izan zuten eta izaten ari ziren emakumeei laguntzea zen. 1999ko irailetik elkartea zabaldu egin dugu eta ondorioz, ginekologia tumorearekin lotutako gaixotasunen bat duten emakumeak ere gure baitan biltzen ditugu. Izan dugun eskarmentuaren laguntzaz, bizi dugun egoera zail horretan guk emakumeok lagundu egin nahi diegu, hala berriro ere bizimodu normala egin dezaten. Badakigu ez dela batere erraza, horregatik, gure testigantza pertsonala adierazi nahi diegu, galdu duten indar hori guztia berreskura dezazun eta eguneroko zailtasunetan laguntza eman diezazuegun", diote Katxalin elkartekoek.

Katxalinek bularreko minbiziari eta ginekologia minbiziari buruz dauden galdera asko erantzun ditzake. "Gainera, diagnostiko, tratamendu eta errekonstruzio garaietan lagundu ditzakegu. Eta egoera berean egon diren emakumeek lagun zaitzakete eta egoera ulertzen lagundu, eta bai zuri bai familiari behar duzun babesa emango dizute".

Arlo ezberdinak lantzen ditu Katxalinek. Alde batetik, informazio orokorra ematen du: "Protesiak, ileordeak, etab. Ileordeak eta ortopedia produktuak saltzen dituzten dendei buruzko informazioa ematen dugu; bertan, bakoitzari ondoren egokitzen zaizun protesia aukeratzen lagunduko dute, baita lentzeria, bainujantzia, etab. ere. Aldi berean, Osakidetza ematen dituen dirulaguntzen berri ere ematen dugu".

Boluntarioak ere baditu Katxalinek, arreta zerbitzua eskaintzeko. "Nahi izanez gero, gure elkarteko boluntario batek ospitalean bisita egiten du, bere testigantza pertsonala emateko eta gaixoa dagoen egoera berean egondako pertsona baten laguntza eta babesa emateko". Aldi berean, psikologia laguntza zerbitzua eskaintzen du, banakakoa zein taldekakoa. "Elkarteko psikologoak banakako terapia eskain diezaioke gaixoiari edota bere familiakoei. Terapia horien helburua, emakumea egoerara hobeto egokitzea da, antsietatea eta depresioa gutxituko dizkion tresnak eskainiz eta minbiziarekiko buruak duen jarrera hobetuz. Taldekako terapietarako, bileren bidez, gaixok antzeko kezka eta beldurrak dituzten emakumeei beren esperientziak kontatuz babestuago eta ez hain bakarrik sentiaraztea da. Psikologoaren egiteko talde horiek koordinatzea eta gaixoen entzat interesgarriak izan daitezkeen gaiei buruzko informazioa biltzea da".

Azkenik, laguntza juridikorako zerbitzua ere badu Katxaline. "Elbarritasun izapideei buruzko informazioa, etab. Elbarritasunaltortzeko jarraitu beharrekoei buruzko zailtasunak izanez gero, horretan lagunduko dizun abokatu baten laguntza eskaini diezazukegun".

zer esan ez dakiela gelditzen da. Tumore txarra daukazula esanda, inguruan dagoen jendeak beste era batera erreakzionatzen du, beste aurpegi bat jarriko du. Nire ustez, hobe da hitz hori baztertzea gure hiztegitik. Gaixotasun kronikoa daukadala esaten dut.

Lasa: Dena den, nik uste dut, ohitu ere egin behar garela. Zerbait natural bezala hartu behar dugu.

Uranga: Nik, bularreko minbizia nuela esanda, lasaitu egiten nintzen.

Aramendi: Baina ondoan duzu pertsonari denbora eman behar zaio asimilatzeke. Gaur egun, minbizia hitza jendearen aurrean entzuten ari da eta normalagoa da. Azken batean, gaixotasun kronikoa da.

Uranga: Minbizia heriotzarekin lotu izan da. Baina gaur egun ez dago lotuta, denak asko aurreratu du eta.

Aramendi: Gaur egun ikusten da, bizitza normala eraman dezakezula aurrera.

Horren adibide dira, bainujantzi eta barru arropa bereziak merkaturatzen ari direla gero eta enpresa gehiago.

Uranga: Askok aurreratu du bai. Iaz, aurreko urtean baino bularretako politagoekin desfilatu genuen. Urtetik urtera, gero eta politagoak daude. Lantzen ari dira. Modernoagoak daude.

Aramendi: Duela 12 urte diagnostikatu zidaten minbizia eta orduan oso itsusiak ziren. Bainujantzi bat erosi eta ez nuen era-

"Ez daitezela bakarrik egon.

Baikorrak izan daitezela.

Honetatik ateratzen da eta

bizimodu normala egin daiteke".

bili ere egin. Nik neuzkan bodi normalekin egokitu nituen bainujantziak.

Lasa: Niri bularraren zati bat kendu zidaten, beste batzuei osoa. Baina ez da ezer gertatzen. Gaur egun dauden aurrerapenekin ez dela ezer ere gertatzen.

Gaixotasun gehienek kasuan, prebentzioa oso garrantzitsua izaten da.

Aramendi: Hemen ere bai. Guztiaren aurretik, prebentzioa!

Uranga: Badago jendea zitologiarik eta mamografiarik egiten ez duena. Eta hobe da garaiz harrapatzea, erremediorik ez dagoenean harrapatzea baino.

Lasa: Niri, ikerketa prozesu batean sartzeko proposatu zidaten. Beraiek agindutako tratamendua egitea zen baldintza. Nik baiezkota eman nuen, ikerkuntza garrantzitsua baita horrelakotan, ikasi eta aurreratzeko. Ez dira asko sartzen prozesu honetan baina nik uste dut garrantzitsua dela.

Diagnostikatu berria diotenari zer esango zenieke?

**ZUBARA**
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformat... 943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

**SSANGYONG**

**LADA**

ARANDIA
G A R A J E A
Autoen konponketa
N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47



Lazo arrosa

Urriaren 19a, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna izaten da. Egun horren bueltan, paparrean lazotxo arrosa jartzen ibiltzen dira Katxalin elkarteak Ordizian, trukean, elkartearentzat dirua lortzeko helburuarekin. Dirua biltzeaz gain, herritarak sentsibilizatzea eta Katxalin elkartearen lana aldarrikatzea ere bada helburua.

Aramendi: Bakarrik ez daudela. Gainditu egiten dela. Eta bizi-modu normala eramaten dela.

Uranga: Animoak eman eta baikorrak izan daitezela. Ez dadila itxi, alboan norbait izan dezala, hitz egin dezan. Eta honetatik ateratzen dela eta bizi-modu normala egiten dela. Bestela, guri galdetu diezaigutela. Baikorra izanda, gaixotasunari aurre egiten laguntzen zaiola.

Dena den, gaixotasuna daukazula jakitea gogorra izango da ezta?

Aramendi: Lehenengo fasea, danbateko bat da. Hurrengoa ere, zer egin behar dizutenaren arabera eta egiten dizutenean ere

danbateko bat da. Ondoren, kimioterapia eta radioterapia ere danbatekoa dira. Dena, askotan, ezjakintasunagatik izaten da. Horiek pasatu egin behar dira.

Lasa: Minbiziak bizitza aldatuarazi dit, baina onerako. Gogoeta eta pentsatu arazi egom dit. Bizi estiloa asko aldatu dut. Neure burua gehiago maite dut. Bizitzaz gehiago gozatzen dut. Bizitza beste era batera ikusten dut. Gauzak beste era batera ikusten ditut. Egunean egunekoa bizi dut. Gauza txikiekin askoz ere zorionsuagoa naiz. Gehiago gozatzen dut gauza txikiekin. Gehiago pentsatzen dut nigan.

Uranga: Nik uste dut, gizatiarragoa naizela.

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

SOLOZABAL

AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



Juan Antonio Urbeltz, dantzaria, ikerlaria eta idazlea:
**“Dogmatzat hartu zan da Iztueta,
baina baditu hutsuneak”**

Uriaren 28an, arratsaldeko 7etan, Zaldibiako Kultur-etxean, Ardiki eguneko ospakizunen barruan, Juan Antonio Urbeltz dantza-maisu, ikerlari eta idazleak hitzaldia eskainiko du, ‘Goierriko dantzak. Historia eta metaforak’ gaia hartuta. Gipuzkoako dantzetan erreferentziatzat hartua izan den Juan Ignazio Iztueta zaldibiarraren lanari kritika eginez hasiko du hitzaldia, eta Goierriko dantzen esanahia aztertuko du ondoren. Aurrerapentxo bat dugu lerrootan. Adibidez, ezpata-dantza, ez dela dantza militar bat, ezpata -euliak uxatzeko dantza baizik.

Noiz ezagutu zenuen Juan Ignazio Iztuetaren lana?

1967an, Iztuetaren omenaldian, Zaldibian dantzatu genuen eta Iztueta ezagutzen hasi nintzen. Nik nire ezagupenak banituen, Goizaldin, bere tradizioetik aritu ginela. Dantzen deskripzioa egiten zuen Iztuetak, baina ikusten nuen, ez zetozeela bat. Zentzu kritikoa erekin hasi nintzen dantza ikasten. Bi helburu nituen: herriz herri dantzak ikasten aritzea ondoren, dantza taldeei erakusteko. Tradizioa egokitu, eguneratu egin behar izan genuen, tradizioa galduta zegoen eta. Gu sartu ginen, guri egokitu zitzaigun. Ez zegoen inor.

Adibidez: Leitzako Inguruxoa egin nahi izan genuen, baina ez zen posible izan. Ez genuen lortu neskek eta mutilek elkarrekin dantza egiterik. Nik esaten nuen, hura ez zela posible, hori ez zela gure kultura, beste zer-bait egon behar zela. Europa guztian, neskak eta mutilek elkarrekin egiten zuten dantza eta hemen, Euskal Herrian ezberdinak? Hori ez zela posible ikusten nuen, desitxuraketaren bat egon behar zuela. Nik Argiarekin, talde eredugarri bat egin nahi izan nuen. Ez da posible mundu guztiaren aurrean lotsagarri gelditzea.

Juan Ignazio Iztueta

zaldibiarrek, 'Guipuzcoaco Dantza gogoangarren Condaia edo Historia' liburua idatzi zuen 1824an, erreferentzia izan den liburua. Zuk dena den, ez duzu oso gogoko. Zergatik?

Iztuetak idazten duen guztia, batez ere dantza liburua eta musika koadernoak, apologiatik idatzita dago. Apologia, ezagutzen dira datuak nahita ezkutatzea da, eta balore estetiko eta moralen epaiketa egitea. Iztueta erabateko apologista da, beraz ez dago ezer gehiago esan beharrik. Gaur egundaino hain indartsu iritsi bada, apologia kritikatzeko oso zaila delako izan da.

Juan Ignazio Iztueta ez da folklorista, esan izan den bezala. Batetik, disziplina hori ez zelako existitzen. Eta bestetik, bere liburua ez duelako dantzen alde idazten, baizik eta pertsona batzuen aurka idazten du. Historia eta filosofian zaletua zen bera. Apologista eta erreformista da Iztueta. Liburu aberatsa da Iztuetarena, (adibidez, soka-dantzaren bidez Goierriko herri guztiak nola lotzen diren dio), baina hutsune handiak ditu.

Gipuzkoako dantzak biltzen dituen liburua, Aita Larramendiren 'Coreografia o Descripcion General de la Provincia de Guipuzcoa da, 1754. urte inguruan idatzita da, baina 1882. urtera arte ez zen argitaratu. Iztuetak ez zuen liburu hori ezagutzen.



Dantza maisua, ikerlaria eta idazlea

Juan Antonio Urbeltz, 1959. urtean hasi zen dantzan, Goizaldi dantza taldean. Beti izan zuen dantza bakoitzaren jatorria jakiteko irrika. "Ezpatak, zamantzainak... dena misterioa zen niretzat". 1959-1965 bitartean egon zen Goizaldin, gerora emaztea izango zuena ere bai. "Kandido Pujanaren taldea zen Goizaldi. Gipuzkoako dantzak oso ondo ikasi nituen. Baina teorikoki, inork ez zekien ezer ere ez. Kandidok ere ez. Gero, pixkanaka, ni joan nintzen han eta hemen ikasitakoa aplikatzen". Goizaldirekin, Europako herrialde eta dantza ugari ezagutzeko aukera izan zuen. 1965ean Goizaldi utzi zuten Urbeltzek eta emazteak eta 1966an Argia dantza taldea sortu zuten. "Dantza taldearen helburua, ez zen dantza egitea bakarrik. Sakoneko lana egin nahi izan genuen. Euskal Herriko herri ezberdinetan ibili ginen dantza ezberdinak ikusten. Ondarea bizirik mantenu beharra zegoen. Dantza saioak egiten genituen Victoria Eugeniean. Gelditu gabe aritu ginen aurkikuntza eta ikerketa lanean".

IZTUETA:

Zenbaitek dogmatzat hartu izan dute Iztueta baina ez da horrela. Iztueta, apologista eta erreformista da.

IZTUETA:

Bere liburuan ez du dantzen alde idazten, baizik eta pertsona batzuen aurka idazten du.



Inauteriak eta San Juan sua

Juan Antonio Urbeltzek dioenez, Inauteriak eta San Juan suak ere, ezpata-euliak eta zomorroak dituzte oinarrian. “Inauteria ez da emankortasuna. Inauteria eta Aratustea, kimaketatik datoz. Inauteri garai horretan, baserritarrek, zuhaitzak kimatzen dituzte. Zergatik kimatzen edo inauten dira garai horretan? Garai horretan, arbolak larbaz beteta daudelako. Intsektu guztiak hor daude eta martxoko lehenengo beroa iristen denean zuhaitz osoa jateko prest egoten dira. Arbola kimatzen baduzu, larbak erori egiten dira, beraz, ez dago intsekturik. Gure arbasoek, maskarak egin zituzten. Euskaraz, zomorroa edo mozorroa esaten zaio. Zomorroa edo mozorroa, euskaraz, ez da maskara bakarrik; intsektua ere bada. Beraz, mozorrotutako pertsona, intsektuz betetako pertsona da, intsektu bat da”.

Herri askotan, inauteri garaian, etxez etxe eskean ibiltzen dira gazteak. “Eman diogu hamarrekoa, esaten da. Beraz, ez da gehiago etorriko. Alegia, zomorroak alde egin du eta ez da berriro etorriko”, zehaztu Urbeltzek.

Ekainan, San Juan sua

Dantzari eta ikerlariak adierazi digunez, ekainan, ere badugu beste momentu garrantzitsu bat: San Juan sua alegia. “Bigarren errituala San Juan sua da. San Juan sua ez da eguzkiari laguntzeko errituala. Zuk uste duzu, baserritarren batek pentsatuko zuela, eguzkia mugitzeko ahalmena zuela? Beste gauza bat da, azalpenak ematen ez jakitea. Zuk uste duzu, marea bizien aurka erritoren bat egingo genuela, eragiteko gaitasuna dugula pentsatuz? San Juan sua, suaren eta kearen egun handia da. Gaur egun, gazteek su handiak egiten dituzte baina lehen ez zen horrelakoa izaten. Egur hezearekin egiten zuten. Ke handia ateratzen zen, asfisiagarria. Alegia, eltxoen kontrakoa zen kea”, zehaztu du Juan Antonio Urbeltzek.

Alamartsoa

Zaldibian San Juan suari Alamartsoa deitzen zaio, Iztuetaren ondaretik hartuta. Alamartsoak, mairua itsasora esan nahi du. Alamartsoa, mairuen heroea da. Gaur egun oraindik mantendu egiten dute. Esan nahi dena da, erretzen zituzten panpinak mairuak zirela. Baina ez da nahastu behar, mairuak, eltxoak dira. Mairubartzaren adibideari helduta, mairuaren baratza esan nahi du, baina mairua kasu horretan, ezpata-eulia da. San Juan suaren inguruan, garai batean, mairuen eta kristauen festak egiten ziren leku askotan”.

Tradiziotik hartutako gauzak baditu Iztuetak, baina nahastu egiten ditu. Zenbaitek dogmatzat hartu izan dute baina ez da horrela. Hutsuneak baditu Iztuetak.

Adibide bat jarriko dizuet: Iztuetak dio, soka-dantzan, (gizon eta emakumeek elkarrekin egiten zuten dantza, eskuak emanda eta Elizak debekatu egin zituen XVII. mende bukaeran edo XVIII. mende hasieran) neskak eta mozkorrak bidaltzeko egiten zirela zubiak. Zuk uste duzu norbait zubian jarriko dela kanporatua izateko eta hainbesteko umilazioa jasateko? Umilatua izan behar den pertsona soka jarriko al da? Ez dago kultura tradizionalik, pertsonak diskriminatzen dituenik. Denek, integrazioa bilatzen dute.

Dantza doinuak ere biltzen ditu Iztuetak.

Marian eta biok, musika doinuak jotzen hasi ginen 1969an. Marianek akordeoia jotzen zuen eta ez genuen bat bera ere ezagutzen. Iztueta 1845ean hil zen, baina 60 urte geroago, Azkue bere abesti bilduma eta hiztegia egiten ari zen. Han ez du Iztuetarenik biltzen. Ez da posible. Iztueta oso kontserbadorea da.

Adibidez, Kuarentakoa Erregela doinua, musika turkiarra da, XX. mendekoa. Arabiarra zela esaten zuten baina turkiarra da. XVIII. mendean modan zegoen, inperio turkiarra gorenean zegoen. XVIII. mendean Vienako enbaxadore turkiarrak, musika orkestra zeukan. Militarra ziren. Turkia modan zegoen eta Austriako noblezia ere banda turkiarrak ekartzen hasi ziren. Mozartek martxa turkiarra dauka, XVIII. mendean modan zegoelako egin zuen.

Guk hemen, adibidez, Luzaideko kaskak ditugu. Turkiarren ikutua daukate. Dantzak fenomeno unibertsalagoa da. Ezpata-dantzak, makil-dantzak... Europako beste herrialde batzuetan ere badira.

INAUTERIA:

Mozorrotutako
pertsona, intsektuz
betetako pertsona da.

SAN JUAN SUA:

Egur hezez egindako
sua da. Eltxoen kontrako
kea ateratzen da.

Iztuetak, dantza gehien jatorria militarra dela dio.

Baina ez da horrela. Brokel dantzaren jatorria adibidez, neolitikoa dago. Horrek ez du esanahi, dantzak 10.000 urte dituenik. Baina baditugu dokumentu oso interesgarriak. Lehenengo Erromakoa adibidez, Kristo aurreko 700. urtekoa. Gure brokel dantzaren jatorria egon liteke. Horrekin esanahi dudana da, Europako kulturaren zati bat dela gurea. Gu Europako kulturaren parte gara, baina gure nortasuna daukagu. Erroman adibidez, ezkutu eta ezpata dantzek, ez daukate jatorri militarrik. Gerrak ez du inoiz ere festarik eragin. Ukaezina da hainbat dantza armekin egiten direla. Baina armak, beste zerbaiten metaforak dira.

Ezpata-dantzak adibidez, ezpata-eulia du jatorrian. Interpretazioetarako jakina, detektibearen usaimena eduki behar da. Durangaldean eta Gipuzkoako zenbait tokitan bai, ezpata ez da arma bakarrik; ezpata intsektua ere bada. Beraz, ezpata-dantzaria ez da ezpatekin dantza egiten duen dantzaria bakarrik. Ezpata-euli dantzaria ere bada. Gauza ezberdina da beraz. Ezpata-euli dantzariak ezpatarekin dantza egiten du, ezpata-euliak erasotzen diorean. Ezpata, intsektuaren luzapena da. Zergatik? Ezpata ezin daiteke heldu, errituala da. Benetako ezpata helduko bagenu, hatzik gabe geldituko ginatke.

Militar doinuarekin ateratzen dira ezpata-dantzariak. Mutilak, belauniko, makurtuta jartzen dira ezpatarekin, eta bandera ahalik eta gehien astintzen dute, bandera, uxatzailea delako. Ezpata-eulia deabrua da, eta konjuratu egin behar da.

Dantzetako ezpatakberaz, ezpata-euliaren metafora dira.

Hori da. Adibide gehiago ere badaude. Iturengo zanpanzarrak edo joaldunak, ezpata-euliaren aurkako maskarak dira. Horregatik eramaten dituzte joareak eta zaldi isatsa atzean. Bi instrumentu horiekin, zaldia ezpata-eulietatik babesten da.


Eta ezkutuak, zer esan nahi du?

Goierriko brokel-dantza malariaren aurkako errituala da. Egeria ninfak brokel bat, ezkutu bat bidaltzen dio Numari, malaria izurriteari aurre egiteko objektu bezala. Numak, 12 ezkutu berdinekin agindu zuen, inor lapurtzera etorritz gero, benetazkoa zein zen jakin ez zezan. Azken batean, ezkutua, malariaren aurkako txertoa da. Ezkutua, babeserako arma da. Ezkutua bidaltzea, txertoa bidaltzea bezala da. Txertoarekin defendatuko gara. San Agustinek, Erroman ikusi zituen Salio apaizak dantza hau egiten, erreken inguruan.

Zinta-dantza ere, gure dantzetariko bat da. Kasu honetan, zein irakurketa egiten duzu?

Zinta-dantza Europa osoan dago zabalduta. Amerikan ere bai, europarrak eraman baikenuen. Zinta-dantza oso interesgarria da. Patua adierazten du zinta-dantzak. Ez dakit Euskal Herrian badagoen esatera zaharren bat (beharbada galduta dago), leku askotan badago, irutea eta patua lotzen dituen. Hau da, ehotzea, bizitzaren paradigma da. Zinta-dantzako makila, ehotzailearen makila da. Ehotzailearena horizontala da. Hariak sartu eta ehotzen joaten da. Zinta-dantzan, bertikala da makila.

Bestetik, dantzari bakoitzak zinta bana dauka. Zinta hori, zilborestea da. Bizitzaren arbolarekin lotzen gaitu, bizitzari lotuta gaude. Borobilean dantza egiten da, bizitza bera ere zirkularra delako. Bizitzan, elkarri traba egiten diogu. Dantzan ere, horregatik bat eskuinera eta bestea ezkerrera joango da. Gurutzatzen garen bitartean, patua ehotzen dugu. Dantzaren erdian, heldutasunean gaude, hasieran geunden kontrako norabidera begira. Ehotutakoa desegiten hasten gara ondoren, berriz ere hasierako norabidera begira bukatzeko, zilbor-hes-tea askatuz, alegia, zinta askatuz. Horrela bukatzen da dantza. Patuaren irakurketa da. Zoragarria. Iztuetaren liburuan agertzen da, makilaren puntan bi uso jartzen zirela eta dantza bukatutakoan, usoak hegaka joaten zirela. Arimaren sinboloa da hori.



EZPATA DANTZA:

Ezpata eulia du jatorrian.
Euskaraz ezpata, ez da arma
bakarrik; baita ezpata eulia ere.

EZKUTUA:

Malariaren aurkako txertoa
irudikatzen du brokelak
edo ezkutuak.

SOKA DANTZA:

Patua adierazten du. Dantzari
bakoitzak zinta bana dauka.
Zinta hori, zilborestea da.



Axalko, Zerainen egindako zurezko txirrindua

Zurezko bizikleta koadroa da Axalko. Lehenengo eredua atera dute, eta 'Bat' izena jarri diote. Gehiago ere etorriko direla adierazten du 'Bat' horrek, jarraipena izateko asmoa badutela sortzaileek. Zeraingo Txirbil aroztegia eta Axalko.com-en elkarlanetik sortu da Axalko bizikleta. Aitzol Telleria eta Enrike Ardura dira proiektu berri honen kideetariko bi. Beraiek eman digute elkarlanaren eta proiektuaren berri. Aitzolek lana eta zaletasuna uztartu ditu Axalko txirrinduarekin.

Zer esanahi du Axalko izenak?

Aitzol: Axeriaren diminutiboa da. Mandoari mandako esaten zaio eta axeriari axalko. Guri, umetan, amak eta amonak ipuinak kontatzen zizkigutenean, axalko izaten zen protagonista.

Enrike: Izen neutro bat da. Erraz lotzen dira izena eta bizikleta. Madrilgo Festibike azokan ere, "Axalko ikusi dut" esaten zuen jendeak.

Eta zer da Axalko txirrindua?

Enrike: Zeraingo Txirbilek atera du aurrera proiektua. Aitzolek beti izan du buruan, zurezko bizikleta egitekoa.

Aitzol: Bai, baina nire asmoa neuretzako egitea zen, kapritxoz. Baina Enrike etorri zen gero.

Enrike: Hizketan hasi ginen eta ikusi genuen, bizikleta munduan, bazegoela jende kapritxosoa, zerbait berezia eskatzen duena. Batzuetan jendeak, bere bizikletarekin identifikatu nahi du. Egurraren bidez, harreman hori sor daiteke. Festibike-n aurkeztu genuen bizikleta eta lehenengo erantzuna hor ikusi genuen. Jendeak interesa azaldu du, esaten ziguten bizikleta berezi bat nahi zutela, ez lehiatzeko; batez ere identifikazioa bilatzen zuten.

Aitzol: Zerbait eskusiboa bilatzen duen jendea badago. Asteburuetan, taldean bizikletan ibiltzera irten eta bere bizikleta, bakarra izatea. Egurrak aukera hori ematen du: nahiz eta material berdinarekin egin bizikletak, sekula ez dira bi berdinak aterako. Egurrak, beta ezberdinak izaten ditu. Izenik jarri gabe ere, zure bizikleta ezagutuko duzu. Egur ezberdinekin eginenez gero ere, kolorearekin jokatu daiteke. Aukera asko ematen ditu.

Enrike: Teknikoki, oso garapen handia dauka bizikletak. Zurezko bizikleta egin daiteke, baina operatiboa izan behar da. Bizikleta horrekin, errepidera irten eta egin nahi diren kilometroak, berdin-berdin egiten dira. Axalkok estetikoki oso kontzeptu handia dauka, baina ibiltzeko bizikleta bat ere bada. Ez da altzari bat.

Aitzol: Beste edozein bizikletarekin bezala ibiltzeko moduko bizikleta da. Ibiltzeko garaian abantailarik baduen? Besteak bezala, berdin-berdin. Beste itxura bat ematen dio egurrak. Zurarekin bizikletak egin izan dira, baina asko, baldarrak dira, itxuratarako bakarrik. Ibiltzeko modukoak... Estatu Batuetan badago fabrikatzaile bat bizikleta onak egiten dituen. Japoniar batek ere egiten ditu. Bizikleta urbanoagoak, diseinu arraroxeagoarekin, austriar batek egiten ditu. Banbuzkoak gehiago daude.

Orain, Euskal Herrian ere bai.

Aitzol: Goierrin gainera.

Enrike: Politena ere bada.

Madrilgo Festibike Azokan aurkeztu zenuten Axalko bizikleta. Zer nolako harrera izan zuen?

Enrike: Jendea argazkiak eta argazkiak atera ibili zen.

Aitzol: Azokako bizikletarik ikutuena izan zen. Azoka batera joaten zara, eta bizikleta guztiak, aluminiozkoak edo karbono zuntzekoak dira. Eta bat-batean egurra azaltzen da. Jendearen

lehenengo erreakzioa zen, uste zutela, pintatutako koadroa zela; karbonozko koadroa, serigrafiatuta. Zurezkoa zela esanda koan, "honek aguantatuko al du?" Izaten zen hurrengo galdera, "ibiltzeko modukoa al da". Jendea gustatu zaio, oso polita iruditu zaio, baina aguantatuko al duen galdetzen zuen. Probatu artekoa da hori.

Enrike: Bizikleta dendetakoak esaten digute, hasieran, karbonarekin berdina gertatu zela. Aluminioa aurrerapen oso handia izan zela eta bat-batean karbono zuntza sartu zela merkaturatua. Arinagoa bazela baina zalantzak zeuden. Argi dago, bizikleta ikusi eta probatu egin behar dela. Probatuz gero, ikusten da, bizikleta normala dela. Gainera, estetikoki, oso polita da.

Kolore desberdinetako txirrinduak ere egiten dituzue.

Aitzol: Bai eta pintatu beharrik gabe. Egurra pintatuz gero, grazia joan egiten zaio.

Enrike: Aitzolek dioena ere hor dago, nahiz eta egur berdina erabili, bizikleta ezberdina izango da. Koadro gehiena, lizar egurrarekin eginda dago, baina kanpoko egurra, norberak aukeratu dezake.

Aitzol: Dauzkan propietate-engatik erabili dugu lizarra. Lanabes kirtenak egiteko, beti lizarra erabili izan da. Garai batean, eskiak zurezkoak egiten zirenean, ere bai. Oso erresistentea delako. Beste egur batzuk ere erabili ditugu. Pintatu beharrean, dauzkan arrasto beltzak adibidez, egurra dira. Kolore ezberdinetako egurrak erabiltzen ditugu, kolorea emateko. Esango genuke, txasisa lizarrekin eginda dagoela.

Enrike: Kanpoko laminak, bezeroak aukeratzen ditu. Berak nahi duen personalizazioa ematen dio.

Aitzol: Edozein egur ezin daiteke izan, indarra egin behar du eta. Bizikletaren atal batzuetan, egurra okertuta dago eta okertzeko edozein

egurrek ez du balio. Lizarra ondo okertzen da. Kanpoko, okertu gabe doan lekuetan, egur klase gehiago sar litezke.

Arrasto ilunagoak ikusten zaizkio koadroari. Zein egur da?

Aitzol: Intxaur beltza edo bengea izan daiteke. Bengeak arazo gehiago ematen ditu eta intxaur beltza erabiltzen da gehienbat. Kolore gorrika eman nahi badiozu, egur tropikalak badaude: sapelia, amarantoa...

Enkarguz egiten al dituzue bizikletak?

Aitzol: Bakoitzak bere neurria eta zein egur konbinazio nahi duen aukeratzen du.

Enrike: Asmoa da denden bidez saltzea. Oso produktu eskusiboa denez, guk uste dugu, dendariak badakiela nor izango den interesatua.

Aitzol: Dendariak badakite zein den kapritxosoa. Ikusten duguna da, argazkitik ikusi edo bertatik bertara ikusi, alde handia dagoela. Ikutu, gainean jarri... alde handia dago. Internet bidez saltzea ez da hain erraza. Orduan, erakusgarritarako dendetan uzten ari gara.

Enrike: Fase honetan, dendaz denda gabiltza. Baina argi dago internet bidez saltzea zaila izango dela, ezagunak ere ez gara

Teknikoki, oso garapen handia dauka bizikletak. Zurezko bizikleta egin daiteke, baina operatiboa izan behar da. Bizikleta horrekin, errepidera irten eta egin nahi diren kilometroak, berdin-berdin egiten dira. Axalkok estetikoki oso kontzeptu handia dauka, baina ibiltzeko bizikleta bat ere bada. Ez da altzari bat.



eta. Gainera, produktu berria denez, kofiantza sortu behar da. Ez da berdina interneten ikustea edo konfiantzazko dendari batek eskaintzea.

Jendeak egiten dizuen lehenengo galdera zein da?

Aitzol: Egurra al da? Hau ez da egurra ala? Gero, denak, klinklin jotzen du, egurra dela ikusteko.

Enrike: Ez dute sinisten barrutik hutsik dagoenik.

Barrutik hutsa al da?

Aitzol: Leku batetik bestera aldatzen da, baina 4-6 mm-ko pareta dauka. Zenbat eta pareta meheagoa egin, arintzen doa. Hasteko lodixeagoarekin hasiko gara baina arintzen joan daiteke. Zein puntura arte, ez dakigu oraindik. Probatuta jakiten da hori.

Zein pisu dauka koadroak?

Aitzol: Neurriaren eta aukeratzen den egurraren arabera da hori. Kilo eta erditik bi kilo eta hiruehunera bitartekoa izango da. Gutxigorabehera, aluminiozko koadroaren pisukoa.

Enrike: Pertsonalizatu egin daiteke, norberaren pisuaren arabera moldatu daiteke. 4 neurri ezberdin daude: S, M, L eta XL. Baina norberaren neurriaren arabera, berezia egin daiteke.

Zerk du lanik handiena?

Aitzol: Egiteko prozesua izan da zailena. Kostatu zaigu, barrutik hutsa uzteko montajea nola egin erabakitzea, juntak nola egin, pieza batzuk direkzio aldean eta pedalen ardatzean aluminiozko piezak eraman behar ditu, edozein pieza erantsi ahal izateko. Hori egurrean nola jarri asmatzea prozesua luzea izan da. Probak eta probak egiten aritu gara, asti librean. Hau lehenengo modeloa da. Eboluzionatzen joan beharko dugu gero, beste bizikleten koadroekin bezala. Orain dela 10 urteko bizikleten koadroek ere ez daukate zerikusirik gaurkoekin.

Beste modeloren bat buruan edukiko duzu beharbada.

Aitzol: Beste modelo bat ez baina oraingoa hobetzea bai. Buruan darabilkiguna, mendiko bizikletaren koadroa egitea da.

Enrike: Batek eskatu digu, Santiago Bidea egiteko.

Aitzol: Prozesua berdina izango litzateke, neurriak aldatzea eta behar den lekuan, pareta lodixeagoa uztea.

Nola ikusten duzue Axalko merkatuan?

Enrike: Ondo kokatuko da merkatuan.

Aitzol: Beharbada Euskal Herria ez da merkatu onena izango.

Enrike: Hemen, bizikleta, lehiatzeko nahi dugu.

Aitzol: Datorren urtean Contador Tourrean, zurezko bizikleta-ekin aterako balitz, hemengo zikloturista denak zurezko bizikleta erostera joango lirateke. Baina bestela, zaila da. Hemen erlojuari gehitxo begiratzen diogu. Nik kapritxoz, karbonozko koadroaren tankeran pintatuko nuke eta bizikletan dezente ibiltzen den bati utziko nioke. Nik uste dut ez litzatekeela konturaturako.

Enrike: Gaur egun bizikletaren munduan, estetikaren kontzeptua oso garrantzitsua da. Denda batera bizikleta erostera zoazenean, begitik sartzen da lehenengo bizikleta. Eta hori Axalkok betetzen du. Nik uste dut jende gehienari gustatuko zaiola. Baina jakina, nahiko produktu garestia da, eskulan handia daukalako. Hori izango da handicap.

Oso garestia al da?

Aitzol: Karbonozko koadrorik onenaren prezioaren antzekoa da. Axalkok, bizikletaren koadroak saltzen ditu. Gero bakoitzak, berari iruditzen zaizkion piezekin hornituko du. Bezeroak bizikleta dendan aukeratuko ditu osagaiak.

Quebrantahuesosa denbora egitera doana, gramoak begiratzaren ari dena... momentuz ez da zurezkoa erostera joango; karbonozkoa erosiko du. Eta zurezkoak adina ordainduko du. Zurezkoa erostera doana, zikloturismoa egitea gustatzen zaiona izango da. Gertatzen dena da, hemen zikloturismoa egiten ahaztu egin zaigula, oso lehiakorak gara. Euskal Herria beharbada ez da tokirik egokiena bizikleta hau saltzeko. Beste leku batzuetan, zikloturismoa egiten oraindik badakite; asteburua iritsi eta badakite bizikletarekin gozatzen.

Aitzol: Merkatu potentziala hemendik kanpo dago. Alemanian...

Aitzol: Hiriburuetan bada jendea traje eta korbatarekin lanera bizikleta kapritxosoarekin joaten dena. Kanean aparkatu behar baduzu ez, baina lantokian bizikleta uzteko konfiantzazko leku bat badago ondo. Lagun batek esaten zidan, Londresen, oso modan dagoela neurriak, eskuz egindako koadroa. Jendeak diru asko ordaintzen omen du. Erabilera horretarako egokia izango da Axalko.

Hemen, momentuz, jendeak errepidean ondo ibiltzen dela ikusi arte, inor ez da joango Quebrantahuesos egitera.

Enrike: Aitzol datorren urtean joango da Quebrantahuesos egi-



tera Axalkorekin. Ni ere triatloian ibiltzen naiz eta Axalkorekin egingo ditut datorren urtean.

Aurten ez da posible izan berandu ibili garelako, baina datorren urtean, Alemanian izaten den Eurobike azokara joateko asmoa daukagu. Europako azokarik garrantzitsuenak da eta munduko bigarren garrantzitsuenak. Uste dugu azoka horretan merkatu potentzial handia dagoela. Eurobiken denetarik dago. Aurten beste bi zurezko bizikleta mota egon dira, bata japoniarra eta bestea austriarra.

Ikusi al dituzue?

Aitzol: Guk ez, baina lagun batzuk izan dira eta argazkiak-eta ekarri dizkigute.

Zer iruditu zaizkizue?

Aitzol: Austriarra erabat ezberdina da. Tubo bertikala, aulkitxotik behera doana, ez dauka. Erronbo formako koadroa da. Kanbiorik ez du; pinoi bakarrekoa da. Hiriko txirrindua da. Astun samarra dela diote. Beharbada, diseinuari, erabilpenari baino gehiago begiratuta egindakoa da. Japoniarrak badu antzekotasunik baina ez da berdina. Hura ere Quebrantahuesos egiteko modukoa da. Beharbada, zurezko osagai gehitxo sartu dizkio: aulkitxoa zurezkoa jarri dio, manillarra ere bai... Beste kontzeptu bat da, baina itxaron zerrenda luzea omen dauka, nahiz eta 20.000 euro kobratzen omen duen bizikleta bakoitza.

Zura lantzeko prozesua

Lehenengo oholak aukeratzen dituzte, koadroaren oinarria egiteko, lizarrezkoak. Kurbatzeko edo okertzeko ez du edozein oholek balio. "Okerrantzeko begiren eta betaren bat edukiz gero, ez du balio. Bizikleta bakoitzerako kantitate handia erabiltzen ez denez, aukeraketa bat egiten da", argitu du Aitzolek. Gero, milimetro 1 eta 2,5 milimetro bitarteko laminak ateratzen dira. Plantillen gainean, okertu, kolarekin erantsi... Pieza ezberdinak ateratzen dira, pieza horiei erdia hustu, elkarri erantsi, alboak jarri... Prozesua nahiko luzea da. Bizikleta bakoitzak, astebeteko lana dauka.

Barniza

Karbono zuntzeko bizikletari ematen zaion barniz berdina ematen diote. Bi osagaiko erretxina da, poliuretano bereziarekin. Barnizarekin, erabat hidrofogatuta gelditzen denez, eurtan erabili daiteke. "Bestela, egurra, hezetasunarekin, hazi egiten da eta denborarekin pixka bat pitzatzen joaten da. Kolpe txiki bat emanez gero, beti ere babestu egiten du egurra", zehaztu du Aitzolek.

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

Beasain

Jazpana Fest

Urriko azkeneko asteburuan, Bernedoenean, Jazpana Fest musika jaialdia izango da. Jarraian duzue hiru egunetako egitaraua:

Urriak 29, ostirala:

17:00etan: Argazki Rallyaren hasiera.

17:00etan: 3x3 Saskibaloia txapelketa.

19:00etan: Guitar Hero lehiaketa.

22:00etan: Kontzertuak: Cheap Time, Peachy Joke, Kea eta Poderosa Afrodita.

Urriak 30, larunbata:

16:00etan: Skate txapelketa.

18:00etan: Arratsaldeko kontzertuak: Simca, Mothership, Otherside eta El cerdo que grunge,

22:00etan: Kontzertu nagusiak: Delorean, Tokya Sex Destruction, Nueva Vulcano eta Mujeres. Kontzertuak amaitzean: DJ Charlie Faber Ganbo dantzalekuan.

Urriak 31, igandea:

19:00etan: Txile Tour dokumentalaren lehen emanaldia egi-
leen aurpezenarekin (GKo Gallery).

22:00etan: Jaz & Monger DJ Session eta festa amaiera.

Merkataritza astea

Bareak Merkatarien elkarteak antolatutako Merkataritza astea ari dira ospatzen Beasainen. Urriaren 24ra bitartean, Brederie-a izango da. Hau da, Bareaken adierazgarria dar-
maten dendetan, mauka ederrak izango dira erostunentzat.

Horrekin, batera, I. Bareak argazki lehiaketa ere izango da. Oinarriak Alzuri, Foto Etxe eta www.eskaintza.bareak.eu helbidean daude.

Udazken kulturala

Urriak 21, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'Air Doll' filma, Usurbe Antzokian.

Urriak 22, ostirala:

18:30ean: Kale antzerkia: Kukubiltxo Antzerki taldearen, Txirrikiz. Kale Nagusian. **22:30ean:** Bertso saioa: Sebastian Lizaso, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Miren Amuriza, Aitor Sarriegi eta Ainhoa Mujika. Usurbe antzokian.

Urriak 23, larunbata:

Antzinako motorren 4. erakusketa Bernedoenean.

19:00etan: Dantza-jaialdia Aurtzaka dantza-taldearekin, Gernika pasealekuko frontoian.

Urriak 24, igandea:

12:00etan: Haurrentzako pintura-tailerra, Joan Iturralde plazan. **18:30ean:** Saloi-dantzen erakustaldia Aguibaile Elkartearen eskutik, Gernika pasealekuko frontoian.

Urriak 27, asteazkena:

17:30ean: Angel Magoa, Ezkierdi pilotalekuan. **19:00etan:** Hitzaldia: 'Gaixotasunaren 7 mailak eta bere trataera elika-
duraren bitartez'. Hizlaria: Ana Revilla. Igartzako jauregian.

Urriak 28, osteguna:

19:00etan: Asmuberen kultura ekitaldia: Asmubeko abesba-
tza, dantzariak,... Udaletxeko Batzar Aretoan.

Urriak 29, ostirala:

18:30ean: Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariek lagunduta. **19:00etan:** Kantujira kalean zehar, Igartzatik hasi-
ta. **20:00etan eta 22:00etan:** Antzerkia: Txalo Produkzioak-
en 'Trampa Mortal', Usurbe Antzokian.

Urriak 30, larunbata:

17:00etan: Haurrentzako tailerra: eskumuturrekoak. Joan Iturralde plazan. **19:00etan:** Txistularien eguna. Goierriko Txistularien kalejira. **19:30ean:** Txistu-kontzertua Goierriko Txistulariekin, Gernika pasealekuko frontoian.

Urriak 31, igandea:

08:00etan: Mendi-irteera Murumendira eta Garina 'finalista-
ren eguna' ospatzeko. **18:30ean:** Kale antzerkia: Oihulari Klown taldearen Mamu txikiak, Kale Nagusian. **19:00etan:** 'Mikrokosmos' abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zerurutuaren Parrokian.

Azaroak 2, asteartea:

09:00etan: XXI. Errezil sagar, fruitu eta barazki-lehiaketa, Gernika pasealekuko frontoian. **19:00etan:** Beasaingo Paperak bildumaren 18. zenbakiaren aurkezpena: 'Beasaingo mugak'. Igartza jauregian.



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Goierri

Goierri ekologikoaren
azken txanpa**Urriak 21, osteguna:**

19:00etan: Hitzaldia: Nola landu baratza ekologikoa. Euskaraz. Hizlaria: Jesus Calvillo. Legorretako Udaletxeko Batzar aretoan.

Urriak 23, larunbata:

10:00etan: Olaberriko Bengoetxera, txakolin ekoizle ekologikora bisita.

Urriak 26, asteartea:

19:00etan: Hitzaldia: Zer da, zertarako, zergatik makrobiotika? Hizlaria: Egoitz Garro. Ordiziako Barrena Kultur etxean.

Urriak 27, asteazkena:

19:00etan: Hitzaldia: Gaixotasunaren 7 mailak eta bere tra-taera elikaduraren bitartez. Hizlaria: Ana Revilla. Beasaingo Igartza jauregian.

Urriak 28, osteguna:

19:00etan: Hitzaldia: Arriskuak eta prebentzioa eremu elektromagnetikoetan: mugikorrak, wifiak, eta abar. Hizlaria: Asier Arregi. Zeraingo Kultur etxean.

Lazkao

Nafarroaren konkista, 1512

Urriaren 26an, arratsaldeko 6,30etan, Lazkaoko San Benito Ikastolako, San Prudentzio eraikineko sarrerako aretoan, solasaldia eta dvd emanaldia izango dira. Gaia, ondorengoa izango da: 'Nafarroaren konkista, 1512'. Hizlaria, Nabarraldeko Beñi Agirre izango da. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek antolatutako ekitaldia da.

Zerain

Kultur astea

Urriak 22, ostirala:

22:00etan: 'Ali -Amona kandelaria eta alfonbra hegalaria' antzerkia, Elizan.

Urriak 23, larunbata:

10:00etan: Burdinaren Mendian zehar ibilaldia.

17:30etan: Bolatea Zerainen. Mahai ingurua herriko bolari-ekin. Ondoren bolatokian bolatan jolasteko aukera izango da.

Urriak 24, igandea: Jubilatuen eguna:

13:00etan: Meza nagusia.

14:00etan: Bazkaria.

Urriak 25, astelehena:

19:00etan: Hitzaldia: Ola gizonak. Hizlaria: Jose Luis Azpiazu.

Urriak 26, asteartea:

19:00etan: Hitzaldia: 'Alkoholaren eragina osasunean. Gaixotasuna da'. Hizlariak: 'Alcohólicos anónimos' eta seni-tartekoak.

Urriak 27, asteazkena:

19:00etan: Hitzaldia: 'Ola. -(t)egi, -korta, etxe hitzak Zerainen'. Hizlaria: Mikel Zalbide.

Urriak 28, osteguna:

19:00etan: Hitzaldia: Arriskuak eta prebentzia eremu elektromagnetikoetan: mugikorra, wifiak... Hizlaria: Asier Arregi.

Urriak 29, ostirala:

22:00etan: 'Txoria, zaude ixilik' emanaldia. Testua: Juan Kruz Igerabide. Musika: Iñaki Telleria. Arpa, kontrabaxua, perkusioa, olerkiak.

Urriak 30, larunbata:

12:00etan: Herriko gaztetxoentzat marrazki rallya.

14:00etan: Kantu bazkaria trikitilariak alaitua.

19:00etan: Tortila lehiaketa.

ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea (MU)

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurketa, kalkulua, ikasketa teknikak

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde, 7 - BEASAIN
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Goierri

Ordiziarock

Urriak 22, ostirala:

20:00etan: Tiritirantes, akrobazia eta su ikuskizuna.

22:30ean: Blues & Jazz kontzertua, D'elikatuz-eko aretoan.

Urriak 23, larunbata:

19:00etan: Tabernen irekiera.

21:30ean: Kontzertuak: Deskriados, Egurra ta Kitto, Stupenda Jones, Lendakaris Muertso eta Mother Ship (Led Zeppelin trubute).

Goierri

Enirio Aralar mankomunitateko mendi martxa

Urriaren 24an, igandean, Lizarrustitik Larraitza, Enirio Aralar mankomunitateko mendi martxa egingo da. Goizeko 8,30etan Lizarrustitik abiatuko dira mendizaleak. Eniriotik pasa ondoren Igaratzen egingo dute hamaiketako. 14:30 aldera Larraitza iritsea aurrikusi da eta Abaltzisketan bazkalduz amaituko dute mendi martxa.

Joan-etorria egiteko autobusa izango da, goizeko 7etan Amezketatik atera eta Abaltzisketa eta Zaldibia pasa ondoren 7:30ean iritsiko dira Ordiziako Eroskiko aparkalekura. Bertan inguruko herrietatik trenaz iristen diren lagunak hartu ondoren, Beasainen, Urbietan etxearen ondoan, Lazkaoko Hirigoien kaleko saihesbideko bidegurutzean eta Ataun San Martingo plazan egingo ditu geldialdiak.

Mendi martxan parte hartzeko izena eman beharra dago urriaren 22rako. Horretarako Lizarrustiko parketxera deitu behar da (943 582 069) edo e-maila bidali (enirioaralar600@gipuzkoa.net). Hainbat mendi elkartetan ere izena eman liteke: Zaldibiako Gailurrerantz, Ordiziako Mendizaleak, Beasaingo Aizkorri eta Lazkaoko Ama Lur.

Legorreta

Kultur astea hasi da

Urriak 27, asteazkena:

17:00etan: Pello Añorga ipuin kontalaria Liburutegian 5 urte-tik aurrerakoentzat.

17:30ean: Hitzaldia: 'Bakarrik bizitzea, bizikidetzaren alternatibak', Herri Zineman.

18:30ean: Buruhandiak.

Urriak 28, osteguna:

17:30ean: Hitzaldia: 'Bizkarra eta artikulazioak nola zaindu', Herri Zineman.

19:00etan: Buruhandiak.

20:30ean: III. Laburmetrai lehiaketara aurkeztutako lanen emanaldia. Jarraian Euskal produkzioko zenbait film laburren emanaldia izango da, Herri Zineman.

Urriak 29, ostirala:

16:30ean: Pote, Igel eta Toka txapelketak Jubilatuentzat.

19:00etatik 20:00etara: Bidezko Merkataritza, apaiz etxean.

19:00etan: Buruhandiak.

19:00etan: 'Legorparty 2010' Ordenagailu Topaketaren hasiera Patxi Ezkiaga Kultur Etxean.

23:00etan: Legorretako XVI. Mus txapelketa Bilkoin Elkartean.

Urriak 30, larunbata:

10:30etik 14:00etara: Gareseko pipar erre salmenta.

18:30ean: Mihiluze lehiaketa helduentzat Udal Pilotalekuan.

20:00etan: Pola de Lenako (Asturias) 'Coro la Flor' Abesbatzaren kontzertua, Salbatore Deunaren parrokan.

19:00etatik 20:00etara: Bidezko Merkataritza apaiz etxean.

22:30ean: Apurka Antzerki Taldeak 'Han izanik, hona naiz' emanaldia eskainiko du Herri Zineman.

Urriak 31, igandea:

11:00etatik 14:30era: Gareseko pipar erre salmenta.

11:30etik 14:00etara: Bidezko Merkataritza, apaiz etxean.

12:00etan: 'Aires del Najerilla' jota taldearen emanaldia udal pilotalekuan.

13:00etan: Piparra osagai nagusi duen I. Piper Sukaldatze lehiaketa.

13:00etan: I. Legorretako Pintura lehiaketaren sari banaketa.

20:00etan: 'Legorparty 2010' Ordenagailu Topaketaren amaiera, Patxi Ezkiaga Kultur Etxean.



- Aroztegia
- Altzariak neurritan
- PVC, aluminio eta egurrezko lehiak

Katea, 5 -Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com



ZEGAMA
OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabek
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 30. zenbakia 2010eko urria



Ekolapikoa
Elikadura ekologikoa



Beasaingo Andramendi Ikastola, 'Ekolapikoa' da **Elikadura ekologikoaren** **aldeko apustua**

Goierrihartzok hitz berria ikasi du egunotan: Ekolapikoa. Beasaingo Andramendi ikastolan ezagutu du Ekolapikoa zer den. Proiektu bat da. Eskolako jantokietan elikadura ekologikoa eta orekatua izatea da bere helburua. Beasaingo Andramendi Ikastolako sukaldariak, irakasleek eta gurasoek, elikadura ekologikoaren eta osasuntsuaren aldeko apustua egin dute.

Biolur, Kutxa Fundazioa, Cristina Enea Fundazioa, Mendi

Nekataritza Elkarateak, Donostiako Udala eta Manttangorri dira proiektua bultzatzen dutenak.

Sukaldea bertan

Ekolapiko proiektuan parte hartzeko baldintza bat, ikastetxean bertan, sukaldea izan eta bertan janaria prestatzea da. Beasaingo Ikastolak hori betetzen du eta Goierrihartzori kontatu dionez, Nekane sukaldariak ere oso garrantzitsua dela ikusten du

Ikastolako haurrak osasuntsu haztea. Haurrak osasuntsu hazteko sekretuetariko bat, nahikoa lo egin eta kirola egiteaz gain, elikadura osasuntsua baita. Kalitatezko produktuak erabiltzen ditu Nekane sukaldean. Jaki ekologikoak erabiltzen saiatzen da. Produktuak ekologikoak izateaz gain, garaian garaiko produktuak erabiltzen ditu Nekane. Esate baterako, Manttangorri, janari ekologikoen banatzaileari erosten dizkio barazkiak eta

Garaian garaikoa

Gaur egun fruta eta barazki gehienak urte guztian aurki ditzakegu dendetan. Dena den, inguruko baserrietara edo baratzetara joanez gero, konturatuko gara, neguan, tomaterik ez dagoela, nahiz eta dendan tomatea salgai egon. Frutetan ere berdina gertatzen da.

Ekolapiko proiektuak, garai bakoitzean dauzkagun barazkiak eta frutak jatea gomendatzen du. Hauek dira arrazoiak: zapoetsuagoak dira; osasuntsuagoak dira; merkeagoak dira; eta gutxiago kutsatzen dute. Adibide bezala, udazkenean gure baratzetan dauden produktuak hauek dira:

Barazkiak: Apioa, arbia, aza, azenarioa, berenjena, borraja, brokolia, erremolatxa, eskarola, espinaka, gari-zainzuria, kalabaza, kalabazina, leka, letxuga, patata, pepinoa, piperra, porrua, tipula, tomatea, zerba.

Frutak: Kiwia, mahatsa, masusta, mugurdia, muxika, nektarina, pikua, sagarra eta udarea.



Produktu ekologikoen onurak

- ✓ Osasungarriak dira
- ✓ Ez dute gehigarri sintetikorik
- ✓ Ez dute pestizidarik
- ✓ Ez dute genetikoki aldatutako organismoak
- ✓ Ez dituzte antibiotikorik
- ✓ Ingurunearekiko jasangarriak dira
- ✓ Kalitate maila gorena dute
- ✓ Animalien ongizatearekiko errespetua dute
- ✓ Naturarekiko ere errespetua dute
- ✓ Zapoetsuagoak dira.

Manttangorrik, aste horretan, zerrendatxo bat bidaltzen du Beasaingo Ikastolako jangelara, inguruko baserrietan zein barazki egongo diren jateko prest azalduz. Zerrendatik barazkiak aukeratu eta Manttangorrik ekarri egiten du. Izan ere, eta adibide bat jartzearren, dendetan tomateak urte guztian salgai egoten badira ere, baserrietako baratzetara txango bat eginez gero, ikusiko dugu, neguan ez dagoela tomaterik.

Jogurt pote handiak

Jogurtekin ere badu adibide bat Nekanek. Haur bakoitzarentzat jogur poto bana erosi beharrean, Tolosaldeko baserri batean egiten dituzten jogurt poto handiak erosten dituzte. Honela, bertako esnearekin egindako jogurta izatearekin batera, zabor gutxiago sortzen da Beasaingo Ikastolan. Arroza, makarroiak, dilistak... horiek ere ekologikoak erabiltzen dituzte. Elikagaiak osasuntsuak izatearekin batera, menuak orekatuak ere badira, era osasuntsuan prestatutakoak.



Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

			4			7	5	
	3	7	8		6	4	2	
5	4			7		9	8	6
						3		
	6		5	8			7	
	9	8			2			5
6		4	7	3		5	9	2
8	2	5	9			6	3	
			2	6	5	8		



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Harri eltzekaria

Autorea: Anaïs Vaugelade
Ilustratzailea: Anaïs Vaugelade
Itzultzailea: Pantxo Mitxelena
Argitaletxea: Ikas

Animaliak protagonista dituen album ilustratua. Otsoa animalien herrian sartzen denetik tentsio eutsi bat sortzen da, irakurlea, orriz orri, ikusten duen giro lasai eta adiskidetsua zalantzan jartzera behartzen duena: *ez al ditu jan behar?* Galdetuz. Kolore hori, gorri, beltzak, otsoaren begiratu berezia, haren saihetzen (gose) markak gainerako animaliek duten bisaia (ase) sineskorriari kontrajarriz... HGLren suspensearen harribitxi bat.

Ikusi-makusi baserrian

Autorea: Martine Perrin
Ilustratzailea: J.M. Olaizola "Txiliku"
Argitaletxea: Ttartalo


Iritsi zaigu bada, joan den hamarkadako frantziar haurrak harritu zituen Martine Perrinen lanetako bat euskarara. Eta zertan den berezi? Bada anbiguotasunez agertzen zaigun irudia benetan zer den asmatzea. Esaterako, zerbaiten zati bat ikusita osotasuna asmatzea, edo aldi berean bi gauza izan daitezkeen irudiak agertzea. Bada, Perrinek ideia hau erabiliz hamalau album atera ditu bere jaioterrian, Frantzian, 2003-2008 artean.

Ordenatu irudia



Iheroglifikoa

Zer zegoen Aizkorri adean?






Ormaiztegiako eskolako neskatoak, 1925-26 ikasturtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Joxebe Irizar Urkiola, Pilare Arzelus (Arraitegi), Maria Albisu Alkorta (Ugarte), Maria Azurmendi, Joxepa Lasa (Zelaeta), Maria Maritxalar, Bittori Astarbe (Errota), Karmen Lizarazu (Antonene) eta Juana Irazusta (Arizmendi).

Erdiko ilaran: Mercedes Irizar Salazar (Muebles San Anton), Kasilde Arzelus (Arraitegi), Karmen Lasa Eguren, Maria Jesus Borde, Miren Irizar Salazar (Muebles San Anton), Mari Luisa Intxausti (Karterone), Isabel Zabala (Errota), Margarita Lizarazu (Antonene) eta Dolores Irazusta (Arizmendi).

Beheko ilaran: Roxario Baztarrika (Iraegi), Paulina Mujika (Iraegi), Blanka Irizar Salazar (Muebles San Jose), Juanita Lasa Eguren, Pilar Azurmendi, Kontxa Intxausti (Karterone) eta Maritxu Lizarazu (Antonene).



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa

tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**


PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak




Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Asteburuetan menu berezia: 20 euro kafea barne

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak

Beasain
senpere 7
943 887 972
www.
Barandiaranzeramikak
.com

dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoa // laguntzen bideratzea



ALTAMIRAN
JATETXEA
A A A

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...
hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net





KONTSULTAK:
NATUROPATA
AKUNPUNTOREA
DIETISTA

Nafarroa etorbidea, 5
Tel.: 943 16 21 10
BEASAIN

